

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LEGUTIOKO UDALA

#### **Irabazteko xederik gabeko gizarte eta kultur elkarteentzako 2020rako dirulaguntzen deialdiaren oinarriak**

BDNS (Identif.): 498474

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, dirulaguntza deialdiaren laburpena argitaratzen da; dena den, horren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) eta Legutioko Udalaren web orrian (<http://www.legutio.eus>) kontsultatu ahal izango da.

#### **Xedea**

Deialdi honen xedea da elkarteek udal mugartearen barruan sustatutako gizarte eta kultura jarduerak edo udalerrientzat interesa dutela iritzi ahal zaien jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzea, aurrekontu mugen barruan.

#### **Pertsona onuradunak**

Irabazteko xederik gabeko elkarteak izan ahalko dira dirulaguntza hauen onuradunak, baldin eta sozietatearen egoitza Legution badaukate eta legeak ezarritakoaren arabera eratu eta erregistratu badira.

#### **Diruz lagundu daitezkeen jarduerak**

Kultura elkarteek proposatutako kultura programen barruko jardueren antolaketatik sortutako gastuak, haiek kokatuta dauden udalerrri edo populazioari bideratuta badaude eta 2020. urtean garatu beharreko egutegi zehatza badaukate.

#### **Balioespen irizpideak**

- a) Jarduera edo proiektuaren bideragarritasun eta interesa.
- b) Aurreko urteetan eskatutako dirulaguntzen justifikazioa.
- c) Jardueraren interes publiko edo soziala.
- d) Euskararen zabalkundeari egiten zaion ekarpena.
- e) Beste erakunde batzuei egindako eskaerak.
- f) Berdintasuna eta gizarteratzea sustatzea.

#### **Dirulaguntzaren zenbatekoa**

Diruz lagunduko den gehienezko kopurua aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 80koa izango da.

#### **Eskaerak eta agiriak.**

Dirulaguntza hauek lortu nahi dituzten elkarteek eskabideak eredu formalizatuan aurkeztu beharko dituzte.

Eskabideak Legutioko Udaleko erregistroan aurkeztu beharko dira, Carmen kaleko 10. zenbakian, edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 2ko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan adierazitako edozein bide baliatuta.

Legutio, 2020ko martxoaren 2a

*Alkatea*

**JON ZUAZO ZUBERO**